## IKASLEEN ESKUBIDEAK > DERECHOS DE LAS ALUMNAS Y ALUMNOS

**1.Hezkuntza integrala izateko eskubidea.** Oinarrizko gaitasunak, edukiak,lan-ohitura eta garapen armonikoa bultzatuko dira.

**2.Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.** Kasu hauei buruz hitz egiten ari gara: tratu txarren aurrean, haurren babesik gabeko edo arrisku egoeren aurrean, eskolatze-adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoenean edo absentismo maila handia duela antzematen denean.

**3.Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.** Ikastetxeak ikasleen ohorea, intimitatea eta irudi pertsonala babestuko du.

**4.Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.** Ikasleen dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartuko da. Eskubide honen berme gisa ebaluazio-saioen ondoren ikasleei eta beraien familiei informazioa emango zaie; kalifikazioan eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondoren ikusteko aukera emango zaie, hala eskatuz gero.

**5. Eskola eta lanbide-orientaziorako eskubidea.** Orientazio hau ikasleen trebetasun, gaitasun eta interesetan oinarrituko da; sexuan edo beste zirkunstantzietan oinarritzen direnak baztertuz.

**6. Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.** Ez zaie inoiz tratu iraingarririk emango. Edozein eraso fisiko edo moralen aurkako babesa izango dute eta ikasleek zalantza izpirik gabe irakaslearengana, tutorearengana eta ikasketa buruarengana joko dute jarritako orden honetan. Eskola-eremuan ez da inola ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik edukitzen eta kontsumitzen utziko.

**7.Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.** Erlijioaren irakaskuntza aukeratzeak edo ez, ez du diskriminaziorik eragingo.

**8. Ikastetxeetan biltzeko aukera.**
Aurretiaz behar diren baimenak eskatuz gero, ezarritako prozedurari jarraituz. Hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat hartuko, beti ere ikastetxeak dituen arauak jarraitu badira.

**9.Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.** Espazio eta momentu batzuk daude horretarako, ezarrita dagoen erara.

**10. Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.**

**11. Parte hartzeko eskubidea.** Gela bakoitzak bere ordezkaria hautatuko du. Ordezkari hauek parte hartuko dute ordezkarien bileretan eta ebaluazio saioetan. Ordezkaritza Organo Gorenean ere ikasleen ordezkariak izango dira. Beste ekintza batzuetan (jaialdiak, etab.) ikasleen ordezkariak egongo dira.

**12. Informazioa erabiltzeko eskubidea.** Ordezkarien eskutik informazioa jasotzeko eskubidea dute.

**13. Aukera-berdintasunerako eskubidea.** Batez ere hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, arlotako gabeziak eta desabantailak konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea da hau.

**14. Gizarte-babesarako eskubidea**. Alde batetik, gaixotasun luze edo istripuen kasuetan ospitaleko eskolan edo etxez-etxeko laguntza jasoko du eskola errendimendua ziurtatzeko.
Bestetik, ikastetxeak babes-neurriak hartu behar ditu berdinen arteko tratu txarren kasuetan, eskola-jazarpenen eta emakumeen aurkako erasoen kasuetan.

**15. Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.** Ikasle guztiek ezagutu behar dute, beraienak eta beste ikasleen eskubideak zeintzuk diren. Irakasleek zainduko dute hemen aipatutako eskubideak betetzen direla eta ikasleen artean diskriminazio egoerarik gerta ez dadin arduratuko dira.

**1.Derecho a una educación integral.** En este derecho se engloba e impulsa el logro de las competencias básicas, los hábitos de trabajo y el desarrollo armónico.

**2. Derecho de los alumnos y alumnas menores a la atención inmediata.** Se refiere a situaciones de malos tratos, escenarios de desprotección o de riesgo infantil o cuando se detecta un alumno/a en edad de escolaridad sin escolarizar o con un grado de absentismo alto.

**3.Derecho de los alumnos y alumnas menores a la protección por parte del centro educativo.** El centro protegerá el honor, la intimidad y la propia imagen de los mismos.

4.**Derecho a la valoración objetiva del rendimiento académico.** La dedicación, el esfuerzo y el rendimiento serán reconocidos y valorados con objetividad. Como garantía de ello, después de las sesiones de evaluación se informará a los alumnos y alumnas y a sus familias. Previa solicitud, se podrá acceder, una vez corregidos, a los trabajos, ejercicios y pruebas que han de tener incidencia en la calificación.

**5. Derecho a la orientación escolar y profesional.** Estará basada en las aptitudes, capacidades e intereses de los alumnos y alumnas; excluyendo las basadas en el sexo y otras circunstancias.

**6. Derecho a la integridad, identidad y dignidad personal.** No serán objeto de trato degradante y tendrán protección ante cualquier agresión física o moral. En caso de maltrato o desprotección el alumno o alumna acudirá, a la mayor brevedad, al profesor o profesora, al tutor o tutora y a jefatura de estudios, en el orden citado. No se permite dentro del ámbito escolar la tenencia o consumo de tabaco, alcohol u otras drogas.

**7. Derecho a la libertad de conciencia.** La elección realizada sobre la enseñanza de la religión no derivará en discriminación alguna.

**8.Derecho de reunión en los centros docentes.** Siempre que con antelación se solicite el permiso necesario siguiendo el procedimiento arbitrado en el centro. Las decisiones colectivas sobre la asistencia a clase del alumnado a partir del tercer curso no se considerarán como comportamiento inadecuado, siempre que se hayan seguido las normas que el centro tiene aprobadas al respecto.

**9. Derecho a la libertad de expresión en los centros docentes.** Existen unos espacios y unos momentos para ello tal y como está regulado en el instituto.

**10.Derecho de asociación de los alumnos y alumnas.**

**11. Derecho a la participación. Cada clase elegirá su representante.** Los representantes de las distintas clases participarán en las asambleas de delegados y delegadas y en las sesiones de evaluación. En el Órgano de Máxima Representación también habrá representantes de los alumnos y las alumnas. En otras actividades (festejos, etc.) habrá representantes del alumnado.

**12. Derecho a la información.** Tienen derecho a recibir la información a través de sus representantes.

**13.Derecho a la igualdad de oportunidades.** Se trata de compensar las desventajas y carencias de los alumnos y alumnas, especialmente los que presentan necesidades educativas especiales, mediante las ayudas que sean necesarias.

**14.Derecho a la protección social.** Por un lado, en el caso de accidentes o enfermedades largas en las Aulas Hospitalarias o en la Atención Educativa Domiciliaria, recibirá la atención para asegurar el rendimiento escolar. Por otro, el centro debe adoptar medidas de protección en los casos de maltrato entre iguales, especialmente en los de acoso sexista y violencia contra las mujeres.

**15.Garantías de respeto a los derechos de los alumnos y alumnas en los centros docentes.** Todos los alumnos y alumnas deben conocer cuales son sus derechos y los de los otros alumnos y alumnas. El profesorado velará para que se cumplan los derechos aquí citados y también cuidará para que no se den situaciones de discriminación entre los alumnos y las alumnas.

# IKASLEEN BETEBEHARRAK > DEBERES DE LAS ALUMNAS Y ALUMNOS

**1. Ikasteko betebeharra.**
Bere gaitasunak albait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea.
Behar adineko lana egingo du eta behar den interesez.
Lan giro egokia sortzen eta eusten lagundu behar du.
Azterketak eta ariketak egiterakoan zintzo jokatu behar du.

**2. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.**
Interesa jarri behar du, agintzen diren lan pertsonalak eginez eta lantaldeetan lagunduz.

**3. Bertaratzeko betebeharra.**
Egunero etorriko da, puntualtasunez eta absentziak justifikatuz.
Gurasoek sinatutako hutsegite jakinarazpen agiria irakasle bakoitzari erakutsi eta sinatu eta gero tutoreari eman beharko dio ikasleak.

**4. Bizikidetza errazteko betebeharra.**
Ikasleek eskola bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giroa egokia lortzeko lagundu behar dute.
Ikasleek jokabide desegokien edo bizikidetzaren aurkakoak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, hala eskatzen bazaie.

**5. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.**
Ikasleek, ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte.
Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko adierazpenik egingo.
Ezin izango da grabazio-baliabiderik erabili, salbu programatutako jardueretan. Eta inoiz ez, grabatua izatea nahi ez duenari.

**6. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.**
Antolakuntza eta Jarduera Araudia eta Bizikidetza Arautegia, antolamenduaren edota diziplinaren ingurukoak, batez ere, errespetatu behar dira. Besteak beste tresnak edo aparatu elektronikoek erabiltzeari araututa dagoena, atsedenaldietan eskola eremutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruz edo irteeretan erakutsi behar den portaerei buruzkoak.
Irakasle eta irakasle ez direnen jarraibideak bete beharko dira.
Hezkuntza-neurri zuzentzaileak betetzeko betebeharra ere badute.

**7. Instalazioak errespetatzeko beharra.**
Ekipamendua, material didaktikoa, instalazioak eta altzariak modu egokian eta bere helburuetarako erabili behar dira.
Baimenik gabe ikasleek ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez da bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan.
Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte.
Ikasleek ikastetxeko testu liburuak eta material didaktikoa erabilera onean mantendu behar dituzte.

**1. Deber de estudio.**
Debe estudiar y esforzarse para conseguir el máximo desarrollo de sus capacidades. Pondrá todo el interés y realizará todo el trabajo necesario. Contribuirá a la creación y mantenimiento de un ambiente adecuado para el trabajo. Mantendrá una conducta de honradez académica en los exámenes y ejercicios.

**2. Deber de participación en las actividades formativas.**
Pondrá interés, realizando los trabajos personales asignados y ayudando en el trabajo en grupo.

**3. Deber de asistencia.**
Acudirá al centro todos los días, con puntualidad.
En caso de ausencia será justificada correctamente mostrando el justificante de la ausencia, firmada por el padre, madre o tutor/a legal, a cada profesor o profesora implicado y entregándolo finalmente al tutor o tutora.

**4. Deber de favorecer la convivencia.**
El alumnado debe colaborar en la mejora de la convivencia escolar y en la consecución de un clima de estudio adecuado.
Los alumnos y alumnas tienen el deber de colaborar en el procedimiento para la aplicación de medidas correctoras de conductas inadecuadas o conductas contrarias a la convivencia, si así se les requiere.

**5. Deber de respetar la libertad de conciencia personal.**
Los alumnos y alumnas deben respetar las decisiones de los otros alumnos y alumnas. Deberán abstenerse de cualquier tipo de expresión insultante, amenazadora o difamatoria a cualquier miembro de la comunidad educativa. No se pueden utilizar medios de grabación, salvo en actividades programadas. En ningún caso en contra de la voluntad de quien no quiera ser grabado.

**6. Deber de respetar las normas escolares.**
Se habrá de respetar el Reglamento de Organización y Funcionamiento del centro y sus Normas de Convivencia, especialmente lo relativo a la disciplina, así como, lo referido al uso de aparatos electrónicos, las posibles salidas del recinto en periodos de descanso o al comportamiento que hay que mantener en las salidas y excursiones.
Se han de seguir las instrucciones de los docentes y de los no docentes.
Deberán realizar las acciones indicadas en las medidas educativas correctoras que se les imponga.

**7. Deber de respetar las instalaciones.**
Deben de conservar y hacer un buen uso del equipamiento, el material didáctico, las instalaciones y el mobiliario, para los fines a los que están dedicados. Los alumnos y alumnas no facilitarán el acceso a las instalaciones del centro a personas ajenas al mismo sin autorización, ni acompañarán a nadie que haya accedido indebidamente.
Los alumnos y alumnas deberán respetar las pertenencias y efectos personales de los miembros de la comunidad educativa.
Los alumnos y alumnas deberán mantener los libros de texto y los materiales didácticos del centro en buenas condiciones de uso.

# IKASLEENTZAKO ARAU GARRANTZITSUAK >

- Ikastetxeko **pertsona guztiei begirunea erakutsi** behar diezu. Erasoak, irainak eta nobatadak debekaturik daude.

- Gogoratu **materialak eta instalakuntzak** (mahaiak, aulkiak, hormak, arbelak, leihoak, ateak, komunak, lorategia, patioak, hesiak, gimnasioa, besteen gauzak, etab.) **behar bezala zaindu** behar direla. Gogoan izan txarto erabiltzeagatik materialean eragindako hondaketak, zein nahita sortutako kalteak, konpondu edo ordaindu egin beharko direla.

- **Justifikatu gabeko ez etortzerik ezin da** egin. Justifikatu gabeko ez etortzeak jokabide desegokitzat hartuko ditugu eta zereginen bat egitea suposa dezake berekin, baita zure etxerako ohartarazpena ere.
DBHOko edo Heziketa Zikloko ikaslea bazara etengabeko ebaluazioaren eskubidea galdu ahal izango duzu.

- Gogoratu **sarreretara garaiz heldu behar** duzula. Ate nagusiaren sarrera itxita izango da ordutegi lektiboan, seinale musikalak jotzen duenetik. Dena den, edozein arrazoiengatik berandu heltzen bazara, atezaintzatik pasatu behar izango duzu. DBHko ikaslea bazara, zure atzerapena jasota geratuko da, klasera joango zara eta, justifikatuta ez izatekotan, momentuan zuen gurasoei jakinaraziko diegu. DBHOko ikaslea izatekotan, ezin izango zara klasera sartu zure atzerapena justifikaziorik gabekoa bada.

- **Klase orduetan** ezin da egon ez **harrera-gunean, ez pasabideetan, ezta komunetan ere**. Atsedenaldietan ezin da aparkalekuan egon, ezta Institutuko sarbide diren eskaileretan ere.

- Ondo dakizunez, **ezin da erre** institutuko eremu osoan.

- **Telefono mugikorrak eta musika entzuteko aparatuak debekatuta** daude eraikin barruan. Erabiltzekotan jasoak izango dira eta gurasoek etorri beharko dute berriz eskuratzeko (adin nagusikoa ez izatekotan).

## *EZAGUTU BEHAR DITUZUN BESTE ARGIBIDE BATZUK*

- Eguneko sarrera eta irteera uneetan baita klase aldaketetan ere **seinale musikal bakar bat** entzungo duzula gogoratu.

- **Atsedenaldiaz** zera jakin behar duzu:
- Jolastokirako erabilgarri dagoen komuna soilik erabil ahal duzula.

- Egunen batean arrazoi justifikaturen bat baldin baduzu institututik irteteko, heldu batez lagunduta alde egin behar izango duzu. Gainera, ikasketa burutzatik pasatu behar izango duzu zure gurasoek idatzitako justifikazio-orriarekin batera.

- **Eskolako txartela erabili** beharko duzu liburutegian liburuak mailegatzeko, bikoizketa geletako giltzak eskuratzeko, eta abarretarako.
Aholku bat: txartela ez galdu, beste berri bat egitearen truke 1€ ordaindu behar da eta!

- **Zer egin klasera etortzerik ez baduzu**?
Klasera bueltatzen zaren egunean justifikapen orria behar bezala bete eta euren klaseetara joaterik izan ez duzun irakasleei erakutsi. Irakasle guztiek sinatu ondoren tutoreari eman.

- **Eta azterketa galdu badut**?
Azterketa hori berriz egin diezazuten, zure etxetik Institutura deitu behar izan dute azterketaren egunean, tutoreari edo dagokion irakasleari azterketara ez etortzearen zergatia azalduz.
Justifikapen orria betetzeaz gain, medikuak edo kasuan kasuko erakundeak emango dizun justifikapen ofiziala erantsi beharko duzu.

- **Jokabide desegokiak, bizikidetzako aurkakoak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkioten jokabideen ondorioak**:
Badakizunez, jokabide desegokiak, bizikidetzako aurkakoak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiotenak edukitzeak hurrengo ondorioak dauzka:

- **Jokabide desegokien ondorioak**:
Jokabide desegokiagatiko Idatzizko ohartarazpena eraman beharko duzu etxera eta zure gurasoek sinatu beharko dute. Derrigorrez eta biharamunean ohartarazi zaituen irakasleari ekarri beharko diozu.
Zeregin akademikoren bat egitea, atsedenaldirik gabe geratzea edo, Zuzendaritzatik pasaraztea ere egin ahal izango duzu.

- **Bizikidetzako aurkako jokabideen ondorioak:**
**Bizikidetzaren kontrako jokabideagatik prozedura zuzentzailea hasi izana jakinaraztea** eramango duzu etxera eta gurasoek etorri beharko dute hitz egitera.
Zure jokabidea zuzentzeko neurriren bat egin beharko duzu, esaterako: ikasgelaz aldi baterako aldatzea, ikasgelatik aldi baterako ateratzea, lan hezitzaileak egitea, eskoletara joateko eskubidea edo jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko eskubidea etetea, etab.

- **Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkioten jokabideen ondorioak**:
Aurreko kasuaren prozeduraren antzekoa da baina bete behar izango duzun neurri zuzentzaileak gogorragoak izango dira, ikastetxearen lekualdatzea, zenbait kasutan, aintzakotzat hartuz.

- **Jokabide desegokiagatik gelatik alde baterako kanporaketaren ondorioak**:
Kasu honetan Hausnarketa Gelara zuzendu beharko duzu kanporatu zaituen irakasleak emango dizun lana betetzera.

Behean sinatzen dugunok, **INSTITUTUKO ARAUAK** familian irakurri eta gero, jakinaren gainean gaudela adierazten dugu.

..........................................................., 2024eko ..............................-ren ...................-a

**Aita / Ama / Tutorearen izen-abizenak** | **Ikaslearen izen-abizenak**

**Sinatuta:** | **Sinatuta:**

# NORMAS IMPORTANTES PARA EL ALUMNADO >

• Debes tratar con **respeto** a todas las **personas** del centro. No se permitirán las agresiones, insultos ni novatadas.

• Recuerda que tienes que hacer un **uso correcto de las instalaciones y los materiales** (mesas, sillas, paredes, pizarras, ventanas, puertas, servicios, jardín, patios, verjas, gimnasio, materiales privados, etc.) y que si se producen desperfectos, deliberadamente o por mal uso, el centro exigirá la reparación o el pago de los arreglos.

• **No** están permitidas las **faltas de asistencia no justificadas**. Las faltas de asistencia no justificadas se considera una conducta inadecuada y pueden conllevar la realización de alguna tarea y la correspondiente notificación a casa.
En el caso de ser alumn@ de Bachillerato y Ciclos Formativos las faltas de asistencia no justificadas pueden hacerte perder el derecho a la evaluación continua.

• Recuerda que debes ser **puntual en las entradas** al instituto. La puerta principal se cerrará después de que suene la señal musical y permanecerá cerrada durante el horario lectivo, En cualquier caso, si por cualquier motivo llegas tarde debes pasar primero por conserjería donde quedará constancia de tu retraso. Si estudias en la ESO te incorporarás al aula e informaremos a tu padre, madre o tutor legal si la falta no es justificada. Si estudias en Bachillerato o Ciclos Formativos no podrás acceder a clase y se contabilizará como falta no justificada.

• Recuerda que en las **horas de clase no está permitido permanecer en el hall, en los pasillos ni en los servicios**. Durante los recreos tampoco está permitido estar en el aparcamiento ni en las escaleras que sirven de acceso al Instituto.

• Como sabes, está **prohibido fumar** en todo el recinto del Instituto.

• **No** está permitido el uso dentro del edificio de **teléfonos móviles** ni de **aparatos de reproducción de música**. Te será retenido hasta que tu padre / madre / tutor venga a recogerlo ( a excepción de mayores de edad).

## *OTRAS INFORMACIONES QUE DEBES CONOCER*

• Recuerda que en las entradas y salidas y en los cambios de clase **suena una sóla señal musical**. Por la tarde se permitirá el acceso al centro a partir de las 14:25 y no antes.

• Sobre el **recreo** tienes que saber:
- Que puedes usar el servicio que hemos habilitado para ese momento en el patio.

• Si algún día tienes un motivo justificado para salir del centro (consulta médica, etc.) deberás hacerlo siempre acompañado de una persona mayor de edad. Además, deberás pasar por la jefatura de estudios con la justificación escrita de tu padre, madre o tutor.

• Si algún día tienes un motivo justificado para salir del centro (consulta médica, etc.) deberás hacerlo siempre acompañado de una persona mayor de edad. Además, deberás pasar por la jefatura de estudios con la justificación escrita de tu padre, madre o tutor.

• Recuerda que es imprescindible la **presentación del carnet escolar** para conseguir un balón en conserjería, para sacar libros de la biblioteca, para que te presten la llave de algún desdoble, etc.
Un consejo: conserva tu carnet, renovarlo te va a costar 1€.

• **¿Qué hacer si no puedes venir a clase?**
El mismo día que te reincorpores presentarás la hoja de justificación de faltas de asistencia a los profesores y profesoras de las clases a las que hayas faltado. Cuando el justificante haya sido firmado por todos los profesores y profesoras a los que afectó la falta, entrégasela al tutor o tutora.

• **¿Y si no he podido asistir a un examen?**
Para que te lo repitan, desde tu casa tendrán que haber avisado al tutor o profesor correspondiente el día del examen, dando justificación de tu ausencia.
Al justificante normal tienes que añadirle el justificante oficial que te haya dado el médico o institución a la que hayas acudido.

• **Consecuencias de la conductas inadecuadas, contrarias y gravemente perjudiciales a la convivencia:**
Como sabes, que tengas conductas inadecuadas, contrarias a la convivencia o perjudiciales para la convivencia tiene las siguientes consecuencias:

• **Por conductas inadecuadas:**
Deberás llevar a casa la **Comunicación de amonestación escrita por conducta inadecuada** y tus padres deberán firmarla. Deberás entregárselo al día siguiente al profesor que te ha amonestado.
Puedes tener que realizar alguna tarea de carácter académico, puedes quedarte sin recreo o, incluso, conminado a pasar por Dirección.

• **Por conductas contrarias a la convivencia:**
Llevarás a casa la **Comunicación de inicio de procedimiento corrector por conducta contraria a la convivencia** y tus padres tendrán que acudir a una entrevista concertada con el centro.
Tendrás que realizar alguna medida correctora de tu conducta, como por ejemplo: cambio o separación temporal de tu grupo-clase, realización de trabajos educativos, suspensión del derecho de asistir a clase o a actividades complementarias o extraescolares, etc.

• **Por conductas que perjudican gravemente la convivencia:**
El procedimiento es similar al caso anterior pero las medidas correctoras son más severas, incluyendo, en casos concretos, el traslado de centro.

• **Consecuencias de la expulsión temporal de clase por conducta inadecuada:**
En este caso deberás dirigirte a la sala de trabajo individualizado para realizar la tarea que te dará el profesor que te ha expulsado.

En ........................................................., a ................... de .............................. de 2024

**Nombre de padre, madre o tutor legal**
**Sinatuta:**

**Nombre de padre, madre o tutor legal**
**Sinatuta:**